

Ongarai ikastetxeko neskak Bizkaiko txapeldun

Pasa dan maiatzaren 19an, Sestaon izan ziren Bizkaiko Eskolarteko eskubaloitxapelketako finalak. Alebin mailan, Kukullaga eta Ermuko Ongarai ikastetxeko taldeak ziren aurrez aurre. Azkenean, lehia estu baten ostean, ermuarrak nagusitu ziren. 21-19 izan zen azken emaitza.

Denboraldi ikaragarria burutu du Ongarai ikastetxeko alebin mailako eskubaloitaldeak. Belen Fernandez aritu da entrenatzaile lanetan eta bere aginduetara, 15 neska izan ditu. Alberto Vivar izan dute Ongarai ikastetxeko kirol koordinatzailea eta Iñaki Garcia aritu da ordezkari gisa. Irailean hasi eta asteen bi aldiz egin dituzte fin-fin entrenamenduak. Urtarrila bitartean, Anaitasuna ikastolako aretoan eta geroztik Ongaraiko kirol instalakuntzetan ari dira. Bizkaiko Eskolarteko

liga, bi fasetan banatu da. Lehen fasean, lehenengo postuan amaitu ostean, Kukullaga taldearen aurka jokatu zuten finala. Guztira 14 talde izan dira maila horretan eta ermuarrak izan dira nagusi.

Sestaoko finalera, 50 ikusle inguru hurbildu ziren Ermutik, gehienak jokalarien ahaideak. Lehia estua eta gogorra izan zen eta azkenean 21-19 gailendu ziren ermuarrak. Herrira itzuli eta omenaldi xume eta polit bat eskaini zieten ikastetxeko kideek. Emozio une haundiak bizi izan zituzten eta tartean malkoren bat ere



izan zen. Jokalari guztiek orogarri bana jaso zuten.

Datorren denboraldian, taldeko neska gehienak infantil mailara pasako dira adina dela eta. Ikastetxeak taldearekin jarraitu nahiko luke, Begoñak laguntzen jarraituko du, entrenatzaile

ez bada ere. Beraz taldea ilusioz dago.

Aurten, guztira Ongarai ikastetxeko 150 gazte inguru aritu dira kirol ezberdinetan, kirolak gazterian geroz eta jarraitzaile gehiago dituen erakusle.

Asier Ibaibarriaga





URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Zeharkaler 8 Tel: 943 17 65 61 ERMOA



ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 943 17 60 52